

Zenbait zergatan aldaketak sartzen dituen FORU ARAUA proiektua.

(2009/10/30eko Diputatuen Kontseiluak onartua)

HITZAURREA

Gipuzkoako zerga araudian zenbait aldaketa sartzea da foru arau honen xedea. Aldaketa horietako batzuk teknikoak dira nabar-nabarmen, eta beste batzuek izaera ekonomikoagoa dute.

Izaera ekonomikoagoa duten neurrien bigarren multzo horri dagokionez, helburua bikoitza da funtsean.

Alde batetik, neurriek bilatzen dute bideragarritasuna ziurtatzea Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako ekonomiak mundu mailako krisi egoeran jasaten ari diren atzeraldiari aurre egiteko herri administrazioek abian jarri dituzten inbertsio politikei, eta, aldi berean, ahalbideratu nahi dute gizarte prestazioak mantentzea gaurko zirkunstantzia ekonomikoetan haien eskaria gero eta handiagoa denean eta horrek gastu soziala igotzea dakarrenean. Neurri horien artean, nabarmentzekoak dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan hartutakoak, aurrezpenaren errenten tributazioa eta jarduera ekonomikoa suspertzeko kenkariaren muga hizpide dutenak, eta, orobat, azpimarratzekoak dira sozietateen gaineko zergan kapital aldakorreko inbertsio sozietateak inbertsio kolektiboko erakundeen tributazio araubide berezitik kanpo uzteari dagokionez sartutakoak.

Bestetik, neurri horiek bultzada bat izan nahi dute higiezinaren merkatua jota daukan paralisia gainditzeko. Izan ere, neurriak hartu dira etxebizitzak oro har, eta ohiko etxebizitza bereziki, erosten dituztenek zerga txikiagoa ordain dezaten. Alde horretatik, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan hartutako neurriak dira aipatzekoak.

Gipuzkoako zerga sisteman nobedade guztiz garrantzitsua izateagatik aipatzekoa da foru arau honetan Ondarearen gaineko Zerga indargabetu dela. Gure inguruko zerga sistemen bilakaerak agerian jarri du zerga hau kendu beharra zegoela, kontuan hartu behar baita zerga hau sortzeko arrazoi nagusia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zentsu eta kontrol helburuak betetzea zela. Neurri honek 2009ko urtarrilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Guztiarekin ere, indarrean mantendu dira beste foru arau batzuetan zergari egiten zaizkion aipamenak eraginkorrak izateko beharrezko diren xedapenak.

Sartutako aldaketak zergaz zerga bereziki behar baditugu, aurrenik aipatuko ditugu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan sartutakoak, hain zuzen ere zerga hori arautzen duen abenduaren 29ko 10/2006ko Foru Arauaren 1. artikuluan sartu direnak. Aldaketa horiek honela banatu dira 1. artikuluan: lehen ordinalean 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak ageri dira; bigarren ordinalean jasota daude 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginak sortu eta behin betiko indarraldia izango dutenak; eta, azkenik, hirugarren ordinalean sartu dira ondorioak 2010eko eta 2011ko zergaldietan izango dituztenak.

Lehen ordinala 9. artikulua 27. zenbakia aldatuz hasten da. Zuzenketa tekniko bat dakarkio zenbaki horretako euskarazko testuari, ondo dagoen gaztelaniazko testuarekin bat ez datorrelako.

33. artikulua 2. apartatua aldatu da ondasun higiezin hiritar eta landarrak nahiz haien gaineko eskubide errealek lagatzeagatik lortutako etekin osoen kontzeptua. Definizio berrian, errentatzaileak jasotzen dituen benetako etekinak konputatzen dira etekin osotzat, ez errentariak, lagapendunak edo onuradunak erabilera edo gozamen eskubideaz baliatzeagatik ordaindu behar dituen kontzeptuak.

53. artikulua 13. apartatua sartutako aldaketak Zuzenbide Erkidera egokitu du errenten egozpena nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidean aplikatzeko eremua. Izan ere, sartutako aldaketaren arabera, lurralde espainiarrean egoiliarak izan gabe, Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliar diren entitateek araubide hori aplikatzeko, ez da kontuan hartzen bakarrik egoitza zein lurraldetan dagoen, entitatearen zirkunstantzia objektiboari ere begiratzen zaie. Sozietateen gaineko zergan ere antzeko aldaketa sartu da.

59. artikulua 2. apartatua i) letra gehitu zaio. Kapital higiezinaren etekinak egozteko erregela berezi bat ezarri da letra horretan, hain zuzen ere, etekin horiek kobrantza gertatzen den zergaldiari egotzi beharko zaizkiola. Azken finean, letra berriaren helburua da 33. artikuluan lehendik ezarrita zegoen erregela egozpen tenporalari buruzko artikuluan islatzea.

83. 84. eta 85. artikulua arrazoi teknikoengatik aldatu dira, eta helburua izan da artikulua horietan aurreikusita dauden kenkariaren baldintzak eta beharkizunak finkatu eta aplikatzeko era hobetzea. Horrela, zabaldu egin da mendetasunaren kenkariaren eremu subjektiboa, mendetasun egoeran dagoen pertsonaren adinari buruzko beharkizuna kendu delako.

Bigarren ordinalak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren neurriak jasotzen ditu. Sartu den aldaketa aurrezpenaren errentei aplikatuko zaien zerga tasarena da, %18tik %20ra igo baita tasa hori, mota horretako errentei aplikatzen zaien tasa errenta orokorrari aplikatzen zaion gutxieneko zerga tasara hurbiltze aldera.

Hirugarren ordinalak beste idazkera bat eman dio jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria arautzen duen 80 bis artikulua, ondorioak 2010. eta 2001. urteetan bakarrik izateko. Aldaketaren arabera, oinarri ezargarria 15.000 eurokoa baino handiagoa ez den autolikidazioetan 400 euroko kenkaria aplikatuko da, oinarri ezargarria handitu ahala linealki murriztuko da zenbateko hori, eta oinarri ezargarria 20.000 eurokoa edo handiagoa denean ez da kenkaririk izango. Horrela bermatzen da kenkari hori, edo haren zati bat, mantendu egingo dela errenta txikiagoak jasotzen dituzten zergadunen kasuan, kontuan izan behar baita kenkaria orokortzea ekarri zuten zirkunstantzietako batzuk nabarmen aldatu direla gaur.

Kenkaria ez da aplikatuko ez 2012ko zergaldian eta ez hurrengoetan. Izan ere hirugarren xedapen indargabetzaileak dioenez, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetuta geratuko da 80 bis artikulua.

Gainera, zerga honekin lotuta, bigarren xedapen gehigarriak luzatu egin du etxebizitza kontuetan sartutako kopuruak erabiltzeko eta haiengatik deduzitzeko epea. Hori osatzera etorri da aurretik egin zen beste luzapen bat, hain zuzen ere martxoaren 17ko 1/2009 Foru Arauak, abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra, aldatzen dituenak, xedapen gehigarrian ezarritakoa. Etxebizitza kontuko kopuruak erabiltzeko epea 2011ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen zaien zergadunei zuzenduta dago neurri berri hau, zergaren foru arauan eta haren erregelamenduan jasotakoarekin bat. Epemuga 2011n dutenentzat, gehieneko epe berria 8 urtekoa da, eta 2012an dutenentzat, berriz, 7 urtekoa.

Foru arauaren 2. artikulua aldaketak sartu ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauaren 18. artikuluko 3. apartatua. Aldaketak %18tik

%20ra igo du zerga tasa osagarria entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek lortutako errentak atzerrira transferitzen direnean.

Foru arauaren 3. artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan sartu ditu aldaketak. Horien artean bereizi behar dira alde batetik, artikulua horren lehen ordinalean jasotakoak, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan ondorioak izateko sartutakoak, bestetik artikulua bigarren ordinalean bildutakoak, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako aplikagarri direnak, eta azkenik, hirugarren ordinalean jaso eta 2009ko uztailaren 4tik aurrerako ondorioak izango dituztenak.

Lehen ordinalean sartutako aldaketetan lehendabizikoa 12. artikulua 2. apartatuari dagokio. Aldaketa honek 6 hilabetera murriztu du zordunen balizko kaudimengabeziengatik gerta daitezkeen galerak kengarrizatzeko epea, berankortasun gero eta handiagori aurre egitearren.

Orobat, aldaketak sartu dira 37. artikuluan, aktibo ez-korrante berriengatik aplikatutako kenkariari buruzkoan. Azken urteotan epea judicial asko izan dira artikulua honen inguruan, eta horrek arazoak baino ez ditu ekarri artikulua horren zer zati dauden indarrean zergadunek jakin zezaten. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin egoera argituta, komeni da artikulua goitik behera berriaztea zergadunei segurtasun juridiko handiagoa ematearren. Horrela, hobekuntza teknikoak sartu dira edukian, eta zenbait zuzenketa ere egin dira kontabilitate plan orokor berriak indarrean sartu direla-eta.

Bestalde, aldaketak sartu dira enpresa txikiaren eta ertainaren kontzeptuak arautzen dituen 49. artikuluan, hiru helburu harturik: idazkera hobetzea, hainbat hobekuntza tekniko sartzea, eta EBk gomendatutako kontzeptura gehiago hurbiltzea.

Gainera, zenbait aldaketa tekniko ere sartu dira, esate baterako, 88. artikulua, bateratze fiskaleko araubide bereziari eragiten diona. Aldaketak dakarrena da talde bat utzi ondorengo ezabaketak eta txertaketak geroratu egiten direla entitate batek talde fiskal bateko kide izateari utzi eta beste talde fiskal batean sartzen denean.

Azkenik, aldaketak sartu dira, baita ere, 12., 19. eta 115. artikuluetan, Europar Batasuneko edozein herrialdeetatik datozen errentei neurri jakin batzuk aplikatzeko aukera orokortze aldera, betiere Zuzenbide Erkideak agintzen duen kokatzeko askatasuna errespetuz. Izan ere, orain arte alderdi hori urrututa ageri zen paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde jakin batzuei zegokienez. Prebentziozko neurri gisa, kasu horietarako subjektu pasiboari exijitzen zaio frogaz deza herrialde edo lurralde horietan kokatzeko arrazoi ekonomiko baliogabeak izan direla.

Bigarren ordinalak, bere aldetik, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako neurriak biltzen ditu. Hemen aldaketa bakarra sartu da, 29. artikulua 5. apartatuarena, a) letra edukirik gabe uzteko. Horrekin, kapital aldakorreko inbertsio sozietateak, azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututakoak, inbertsio kolektiboko erakundeen tributazio araubide berezitik kanpo utzi dira.

Hirugarren ordinalak 102. artikulua aldatu du, eta balore trukeak beste era batera arautu direlako etorri da. Arauketa berria apirilaren 3ko 3/2009 Legeak ezarri du, merkataritza sozietateen aldaketa estrukturala onartzen dituenak. Aldaketa honek 2009ko uztailaren 4tik aurrera ditu ondorioak, data horretan sartu baitzen indarrean aipatutako legea.

Foru arauaren 4. artikulua kooperatiben zerga erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauan sartu ditu aldaketak. Horiek guztiek duten helburua da azken foru arau horretan Heziketarako eta Sustapen Kooperatiborako Fondoari dagokionez araututakoa Kooperatiben Legean sartutako aldaketetara egokitzea, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legearen bidez sartutako aldaketetara hain zuzen. Izan ere, azken lege

horren laugarren xedapen gehigarriak aldaketak sartu zituen Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak fondo hori arautzeko eran, eta izena aldatu zion: "Heziketarako eta sustapen kooperatiborako fondoa" deiturikoa "Heziketarako eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzio" bihurtu da. Gainera, kontribuzio horren hainbat alderdi ere aldatu zituen. Hori guztia dela-eta, beharrezkoa da 2/1997 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota dagoen kenkariaren izena eta baldintzak aldatzea eta arau horretako zenbait artikulutan fondoa izendatzeko era berritzea.

Foru arauaren 5. artikulua Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 18/1987 Foru Arauan sartu ditu aldaketak.

7. artikulua 3. apartatuko aldaketak Hipoteka Legearen 11. artikuluko kasu guztietara zabaltzen ditu baldintza suntsiarazle espresuak zerga-gaia zehazteko garaian, eta ez bakarrik salerosketa kasuetara. Indarrean dagoen araudian, baldintza horiek salerosketetan geroraturako prezioa bermatzen duten hipotekekin parekaturik daude.

7. artikulua 5. apartatuko b) letran sartutako aldaketak bateragarri egin nahi du letra horren edukia urtarrilaren 13ko zerga alorreko presazko 1/2009 Foru Dekretu Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak, eta Aseguru Primen gaineko Zerga aldatzen dituenak, BEZari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 7. artikuluko 1. zenbakian sartutako aldaketarekin. Egindako azken aldaketa horren arabera, subjektu pasiboaren ondare enpresarial edo profesionalaren parte diren eta, bere bitartekoak erabilita, jardura enpresarial edo profesional bat garatu dezakeen unitate ekonomiko autonomo bat osatzen duten elementu gorpuzdunak eta, hala badagokio, gorpuzgabeak eskualdatzea ez dago BEZari lotuta, beste zerga batzuetan eskualdaketa horri aplikaziozkoa zaion zerga araubidea zeinahi dela ere. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izateko onartu da neurria.

Ondare Eskualdaketen gaineko Zergan aplikatu beharreko tasarekin lotuta, 11. artikulua 1. apartatuan berregituratu egin da etxebizitzari ezarri behar zaien karga tasa. Horrela, e) letra %4ko tasa finkatu da etxebizitza eskualdaketa orokorretarako, eta sortu den f) letra berriak esaten du eskuratzaillearen ohiko bizilekua izateko egiten diren etxebizitza eskualdaketei %2,5eko tasa aplikatuko zaiela baldintza jakin batzuk betez gero. Etxebizitza bihurtzeko erosten diren lokalen kasuan, bi xedapen horiek aurreikusten dute zerga Administrazioak itzuli egin dezakeela hasieran ordaindutako zergaren eta xedapen horien arabera ordainduko litzatekeenaren arteko aldea.

14. artikulua 3. apartatuan sartu den aldaketak doikuntza bat egiten du emakiden balio errearen kalkuluan emakida horien hartzaileak aldiari kanon, prezio, partaidetza edo gutxieneko mozkin bat ordaindu behar duenean eta emakidak urtebetetik gorako iraupena duenean. Emakidadunak urtean ordaintzen duen zenbatekoa emakidaren epearen arabera kapitalizatzen da, %10ean. Horrekin gaurko kapitalizazio sinplea saihesten da, oinarria emakiden benetako errealitateara egokitzen delako.

17. artikulua 1. apartatuan sartutako aldaketak hobetu egin nahi izan du partikularrek ondasun higiezinaren merkatuan duten egoera eraikitzen ari diren higiezinak eskuratzeko kreditu edo eskubide lagapenak –"paseak" deiturikoak– zergapetzeari dagokionez. Orain arteko araudiaren arabera, ondasun higiezinaren balio eraiki osoa kontuan hartuta kuantifikatzen zen oinarri ezargarria. Sartutako aldaketa dela medio, eraikitzen ari den ondasun higiezinak erosketa eskubide pribatua lagatzeko unean duen benetako baliora egokitzen da kalkulua, lagapenagatik ordaindutako kontraprestazioa izanik gutxieneko zenbatekoa. Horrek ondasun higiezinaren eskualdatzea ahalbidetuko die erosketarekin jarraitzeko arazoak dituzten oraingo kontratatzaileei, eta malgutasun handiagoa emango dio merkatuari.

29. artikulua 2. apartatua kendu egin da Espainiako Patente eta Marken Bulegoari egiten zitzaion aipamena, bulego horretan inskribatzeak ez baitakar inoiz ere Gipuzkoako Foru Aldundiari tributatzea.

Edukiz bete da 41. artikulua 1. apartatuko B) letraren 11. zenbakia, eta helburua izan da egintza juridiko dokumentatuen modalitateko agiri notarialen "kuota mailakatu" Zergatik salbuestea etxebizitzaren lehen eskualdaketan. Aldaketa hau 2010eko uztailaren 1etik aurrera aplikatuko da.

52. artikulua sartu den aldaketaren xedea da xedatuta uztea kasuan kasuko Bulego edo Erregistro Publikoak beti egiaztatu beharko duela zein den eragiketa bakoitzean erakunde eskuduna zergaren ordainarazpenari dagokionez. Aldaketa honek 55. artikulua 1. apartatuko edukia eragiten duenez, apartatu horrek ere aldaketak izan ditu bere testuan.

Foru arauaren III. kapituluak udal zergei dagozkien aldaketak biltzen ditu. Horrela, 6. artikulua Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauan sartutakoekin hasten da. Aurreneko aldaketak balio ponentzia berriak onartzearen ondorioz sortzen diren balio katastralak jakinarazteko erari eragiten dio. Idazkera berriaren arabera, interesatua bertarata jakinarazi ahal izango dira orain balio katastralak, posta bidez eta jaso izanaren agiria eskatuta jakinarazi beharrez, modalitate hori gatazkatsua eta kostu handikoa suertatzen baita komunikazioak masiboki egitea eskatzen duen zerga honetan.

Udalek onartu ditzaketen hobarien inguruan 15. artikulua 1. apartatuko a) letran sartu den aldaketaren xedea da letra horretako esaldi bat ezabatzea, hain zuzen ere, udal erabakirik ez badago, gehieneko hobaria aplikatuko dela dioena. Izan ere, hobariak ezartzea edo ez ezartzea udalen eskumena denez, logikoagoa dirudi udalek bere erabakitzea zer portzentaje aplikatuko den kasu bakoitzean.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan sartu den azken aldaketa 19. artikulua 2. apartatuari dagokio. Bertan ezabatu egin da errolden jendaurreko erakusketari egiten zitzaion aipamena, uztailaren 9ko 372008 Foru Arauak ekarritako aldaketekin bat.

7. artikulua jasotzen diren aldaketak apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearenak dira, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateratua onartu zuen dekretuarenak hain zuzen.

Lehenengo aldaketak ezabatu egin du 5. artikulua 1. apartatuko c) letraren 3. erregelatik pertsona fisikoen aipamena eragiketa bolumena kalkulatzeko, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan egin zen aldaketarekin bat etortzearen. Orobat, abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren aipamena ere ezabatu da.

Bigarren aldaketak paragrafo bat gehitu dio 14. artikulua 2. apartatuari, eta helburua izan da jarduera ekonomikoen titularrak askatasun osoz sartu ahal izatea zergaren matrikulan jasota dagoen informazioan.

Foru arauaren 8. artikulua uztailaren 5eko Foru Arauan sartu ditu aldaketak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoan. 2. artikulua berridatzi da pertsona desgaituen kasuan ponderatuta egon dadin turismo ibilgailuak Zergatik salbuesita uztea. Helburua da salbuespen hori desgaitasun handiko kasuetan edo mugikortasun arazoak daudenean bakarrik aplikatzea.

Azkenik, 4. artikulua 1. apartatuko tarifaren kuota aldatu eta %2 igo dira turismo eta motozikletei aplikatu beharrekoak. Era berean, aldatu egin da udalek kuota horien gainean gehienez aplika dezaketen gehikuntza koefizientea, 4. artikulua horren 3. apartatua jasotakoa.

Azken zerga horrekin lotuta, lehen xedapen iragankorrean, foru arau honek dio salbuespena berriro eskatu beharko dela baldin eta zergadunak ez badio udalari aurrez frogatu erregulazio berrian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Xedapen indargabetzaileen artean, bi dira bereziki aipatzekoak: batetik, jarduera ekonomikoa sustatzeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikatzen den kenkaria 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetzen duena, eta bestetik, Ondarearen gaineko Zerga 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin indargabetzea dakarrena.

Eta azken xedapen indargabetzaile horrekin lotu-lotuta, lehen xedapen gehigarriak indarrean mantendu ditu ondarearen gaineko zergaren arauak zerga hori aipagai hartzen duten edo hartara igortzen diren xedapenen edukia osatze hutsari begira.

Azkenik, amaierako xedapen bakarrak ezartzen du noiz sartuko den indarrean foru araua eta zer ondorio izango dituen. Horrela esaten digu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko dela indarrean, bere xedapenetan berariaz aurreikusitako ondorioen kalterik gabe.

I. kapitulua. Aldaketak zuzeneko zergetan

1. artikulua. Abenduaren 29ko 10/206 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.

Lehena. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketak sartu dira abenduaren 29ko 10/2006 FORU ARAUAN, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoan:

Bat. 9. artikulua 27. zenbakia honela geratu da idatzita:

«27. Familia inguruneko zaintzarako eta laguntza pertsonalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak, zerbitzuari lotutakoak, betiere autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen ondorio badira.

Era berean, zergatik salbuetsita dago zaintzaile ez-profesionalak autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legeak 14.4 artikuluan familia inguruneko zaintzetarako aipatzen duen prestazio ekonomikoaren onuraduna den mendeko pertsonari emandako arreta dela-eta jasotzen duen ordainsaria. Onuradunari aitortutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa izango da muga.

Aurreko paragrafoan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, mendeko pertsonaren zaintzaile ez-profesionaltzat hartuko da ezkontidea, izatezko bikoteko laguna edo odolkidetasun, ezkontza edo adopzio bidezko ahaidetasuneko hirugarren mailarainoko senidea, hura barne.»

Bi. 33. artikulua 2. apartatua honela geratu da idatzita:

«2. Etekin osotzat konputatuko da erabilpen edo gozamen eskubide eratuaren errentari, azpierrenerari, lagapen hartzaile edo onuradunarengandik kontzeptu guztiengatik jasotzen den zenbatekoa, barne hartuta, hala badagokio, higiezinarekin batera lagatuko ondasun guztiei dagokiena, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita.»

Hiru. 53. artikulua 13. apartatua honela geratu da idatzita:

«13. Artikulu honetan jasotakoa ez da aplikatuko lurralde espainiarrean egoiliar ez den entitateak Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duenean, betiere zergadunak frogatzen badu bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresariak egiten dituela.»

Lau. i) letra berria gehitu zaio 59. artikulua 2. apartatuari, honako hau dioena:

«i) Kapital higiezinaren etekinak kobrantza gertatzen den zergaldiari egotziko zaizkio.»

Bost. 83. artikulua 4. apartatua honela geratu da idatzita:

«4. Aurreko ahaideak egoitzetan bizi badira, kenkaria mailarik gertueneko ahaideek egingo dute baldin eta frogaturik uzten badute aurreko ahaidea egoitzako egonaldi gastuak beraiek ordaindu dituztela. Gastu horiek maila bereko ondorengo ahaide batek baino gehiagok ordaindu badituzte, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da beren artean.»

Sei. 84. artikulua 1. eta 2. apartatuak honela geratu dira idatzita:

«1. Zergadun desgaitu bakoitzeko, jarraian zehazten den kenkaria aplikatuko da arauz ezartzen den minusbaliotasun mailaren eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren arabera:

<i>Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza</i>	<i>Kenkaria (euroak)</i>
Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean	850
Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa denean	1.200
Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa denean, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuta	1.400
Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa denean, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuta	2.000

Aurreko paragrafoan aipatutako minusbaliotasun maila eta bertan adierazitako puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan eta apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan ezarritako eran neurtuko dira. Azken Errege Dekretu horren bidez mendetasun egoeraren balorazio-baremoa onartu zen, hain zuzen ere abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritakoa.

2. Kenkari hori bera aplikatuko da, era berean, ondorengo edo aurreko ahaide, ezkontide edo izatezko bikote-lagun edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzeko, hura barne, horren adina edozein dela ere, baldin eta pertsona hori, zergadunarekin bizi izanik eta bere urteko errentak lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoa izan gabe, desgaitua bada. Kenkari hau bateragarria izango da aurreko artikuluetan esandakoaren arabera egin daitezkeen kenkariekin.

Aurreko paragrafoan eta ondorengo 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, egoitzetan dauden pertsona desgaituen egoera zergadunarekin batera bizitzearen parekotzat hartzen da, betiere frogatzen bada pertsona desgaitua egoitza horietan egoteagatik sortutako gastuak zergadunak ordaindu dituela.

Era berean, kenkari hau egin daiteke desgaitua zergadunari lotuta badago tutoretza edo harrera arrazoiak direla medio, eta azkenaurreko paragrafoan adierazitako errenta maila betetzen bada. Tutoretza edo etxeko harrera adin gabekoak babesteko gaietan eskudun den entitate publikoarekin beharko da hitzartu.»

Zazpi. 85. artikulua honela geratu da idatzita:

«85. artikulua. Mendetasunaren kenkaria.

1. Mendetasuneko pertsonatzat hartutako zergadun bakoitzeko, jarraian adierazten diren kenkariak aplikatuko dira, arauz ezarriko den mendetasun mailaren arabera:

<i>Mendetasun maila</i>	<i>Kenkaria (euroak)</i>
I. maila: Mendetasun txikia	1.200
II. maila: Mendetasun ertaina	1.400
III. maila: Mendetasun handia	2.000

Gainera, mendetasunaren kalifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako xedepenen arabera jasota izanik, kalifikazio hori ez badator bat goian aipatutako mendetasun mailekin, mendetasuneko pertsonatzat kalifikatutakoek 850 euroko kenkaria egin ahal zango dute arauz ezarriko diren baldintzei jarraikiz.

2. Kenkari hori bera aplikatuko da, era berean, ondorengo edo aurreko ahaide, ezkontide edo izatezko bikote-lagun edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzeko, hura barne, bere adina edozein dela ere, baldin eta pertsona hori, zergadunarekin bizi izanik eta bere urteko errentak lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoa izan gabe, mendetasun egoeran badago. Aurreko paragrafoan eta ondorengo 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, egoitzetan dauden mendeko pertsonen egoera zergadunarekin batera bizitzearen parekotzat hartzen da, betiere frogatzen bada mendeko pertsona egoitza horietan egoteagatik sortutako gastuak zergadunak ordaindu dituela.

Era berean, kenkari hau egin daiteke mendeko pertsona zergadunari lotuta badago tutoretza edo harrera arrazoiak direla medio, eta azkenaurreko paragrafoan adierazitako errenta maila betetzen bada. Tutoretza edo etxeko harrera adin gabekoak babesteko gaietan eskudun den entitate publikoarekin beharko da hitzartu.

3. Aurreko apartatuan aipatutako ahaide edo asimilatuen artean ageri ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzeko, 1. apartatuan ezarritako kenkariak aplikatuko dira betiere mendetasun maila kontuan hartuta, zergadunarekin bizi denean eta bere urteko sarrerak, errenta salbuetsiak kanpoan utzita, lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halakoa baino txikiagoak direnean.

4. Mendetasun egoeran dagoen pertsonak zerga honen autolikidazioa aurkezten badu, aukeran izango du kenkari osoa berak aplikatzea edo, bestela, kenkari osoa berarekin bizi den zergadunak aplikatzeko uztea. Bigarren aukeraren alde eginez gero, eta mendeko pertsona zergadun batekin baino gehiagorekin bizi bada, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta egingo da zergadun bakoitzeko.

5. Artikulu honetan aipatzen den kenkaria bateraezina da aurreko artikuluan araututako desgaitasunaren kenkariarekin.»

Bigarren. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 78. artikulua aldatu da abenduaren 29ko 10/2006 FORU ARAUAN, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoan, eta honela geratu da idatzita:

«78. artikulua. Aurrezpenaren oinarri likidagarriari aplikatu beharreko karga tasa.

Aurrezpenaren oinarri likidagarriari %20ko karga tasa aplikatuko zaio.»

Hirugarrena. Ondorioak 2010 eta 2011ko zergaldietan bakarrik izateko, aldaketak sartu zaizkio 80 bis artikuluari abenduaren 29ko 10/2006 FORU ARAUAN, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoan, eta honela geratu da idatzita:

«80 bis artikulua. Jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria.

1. Oinarri ezargarria 15.000 eurokoa edo hortik beherakoa duten zergadunek 400 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean. Autolikidazio bakoitzeko egingo da kenkari hau.

2. Oinarri ezargarria 15.000 eurotik gorakoa eta 20.000 eurotik beherakoa dutenean, zergadunek honako kenkaria egingo dute urtean: 400 euro ken biderketa honen emaitza (0,08 bider oinarri ezargarriari 15.000 euro kendu ondoren ateratzen den zenbatekoa). Autolikidazio bakoitzeko egingo da kenkari hau.

3. Artikulu honen ondorioetarako, oinarri ezargarritzat hartuko da foru arau honen 67. eta 68. artikuluetan aipatzen diren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri ezargarria batzetik ateratzen den zenbatekoa. Oinarri ezargarri orokorrak saldo negatiboa ematen duenean, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.»

2. artikulua. Apirilaren 26ko 2/1999 FORU ARAUA, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, aldatzea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela aldatu da 18. artikulua 3. apartatua apirilaren 27ko 1/1999 FORU ARAUAN, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoan:

«3. Gainera, entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek lortutako errentak atzerrira transferitzen direnean, %20ko ezarpen osagarria exijituko da establezimendu iraunkorraren errenten kargura transferitutako zenbatekoen gainean, foru arau honen 17.1.a) artikuluan aipatu diren ordainketak ere barruan sartuta, baldin eta establezimendu iraunkorraren oinarri ezargarria finkatzeko garaian horiek gastu kengarriak izan ez badira.

Ezarpen osagarriaren aitorpena eta ordainketa establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako ezarrita dauden moduan eta epeetan egingo dira.»

3. artikulua. Uztailaren 4ko 7/1996 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.

Lehena. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, aldaketa hauek sartu dira Sozietateen gaineko zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan:

Bat. 12. artikulua 2. eta 6. apartatuak honela geratu dira idatzita:

«2. Zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz kredituen narriaduragatik izandako galerak kengarriak izango dira, baldin eta zergaren sortzapenaren unean zirkunstantzia hauetako bat gertatzen bada:

a) Obligazioaren mugaegunetik sei hilabete igaro izana.

b) Zorduna konkurtso egoeran izatea.

c) Zorduna edo, zordun hori entitatea izatekotan, haren administratzaile edo ordezkarietakoren bat ondasunak ostentzeagatik auziperatuta egotea.

d) Obligazioak auzitegietan erreklamaturik egotea, edo haiek kobratzeko bide judicial bat edo arbitraje prozedura bat irekita izatea.»

«6. Merkatu arautu batean kotizatzen ez duten edo, kotizatu arren, merkataritza legerian jasotakoari jarraituz taldekoak, multitaldekoak edo elkartuak diren entitateen kapitalean parte hartzea adierazten duten baloreen narriaduragatik izandako galerak direla-eta egindako kenkariak ezingo du gainditu fondo propioek ekitaldiaren hasieran eta amaieran dituzten balioen arteko diferentzia, balio horiek partaidetzaren proportzioan kalkulaturik. Konputu horretan ekitaldian egindako ekarpenak eta ekarpenen itzulketak hartu beharko dira kontuan.

Diferentzia hori kalkulatzeko, ekitaldiaren amaierako balioak erabiliko dira, betiere organo eskudunak egindako edo onartutako balantzeetan jasota badaude.

Aurreko paragrafoetan jasotakoa jasota ere, entitate horien kapitalean dagoen partaidetza portzentajea gutxienez %5ekoa denean, kenkari horrek ezingo du gainditu partaidetza horien erosketa prezioaren eta entitate partaidetuaren ondare garbiaren arteko diferentzia; ondare garbia, jakina, partaidetzaren proportzioan hartuko da kontuan, balorazioaren egunean dauden gainbalio tazituekin zuzenduta. Balio hori zehazteko, eta enpresak aldi berean beste batean parte hartzen badu, kontuan hartu beharko da zer ondare garbi ateratzen den urteko kontu bateratuetatik Merkataritza Kodean eta berau garatzen duten arauetan jasota dauden irizpideak aplikatuta.

Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten entitateetako partaidetzak narriatzeagatik gertatutako galerak ez dira kengarriak izango, non eta entitate horiek ez dituzten beren kontuak bateratzen partaidetzaren entitate titularraren kontuekin, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako zentzuan, edo, non eta haien egoitza ez dagoen Europar Batasuneko herrialde batean eta subjektu pasiboak ez duen frogatzen bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresarialak egiten dituela.»

Bi. 19. artikulua 3. apartatuko b) letrako azken paragrafoa eta 6. apartatuko a) letra honela berriatzi dira:

«Entitate partaidetuaren egoitza paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean kokatuta dagoenean, artikulua honetan xedatutakoa ez da inoiz ere aplikatuko, non eta bere egoitza ez dagoen Europar Batasuneko herrialde batean eta subjektu pasiboak ez duen frogatzen bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresarialak egiten dituela.»

«a) Errenta horiek izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga bati lotuta eta ez salbuetsita badaude, artikulua honetako 3. apartatuaren b) letran jasotakoaren arabera, eta errenta horiek lortzen dituzten establezimenduak paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean ez badaude, non eta haien egoitza ez dagoen kokatuta Europar Batasuneko herrialde batean eta subjektu pasiboak ez duen frogatzen bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresarialak egiten dituela.»

Hiru. 37. artikulua honela geratu da idatzita:

«37. artikulua. Kenkaria aktibo ez-korrante berrietan inbertitzeagatik.

1. Entitatearen ustiapen ekonomikoari lotutako aktibo ez-korrante berrietan (terrenoak halakotzat hartu gabe) inbertsioak egiten direnean, kuota likidoari inbertsio horien zenbatekoaren %10 kendu ahal izango zaio, betiere aktibo horiek ibilgetu materialaren edo higiezinetan egindako inbertsioen parte badira.

Aktibo ez-korrante bat berria ez dela ulertuko da aldez aurretik beste pertsona edo entitate batek erabili duenean, hau da, bere ibilgetuaren barruan sartuta egon denean edo, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraituta, hor sartuta egon behar zuenean, nahiz eta funtzionamenduan hasi ez.

2. Hurrengo 3. apartatuko b) letran xedatutakoa eragotzi gabe, aktibo ez-korrontearen elementuetan zergapekoek egiten dituzten gastu eta inbertsioek ez dute artikulua honetan araututako kenkarirako eskubiderik emango kontabilitatean hobekuntzat hartzen badira.

Errentamendu finantzarioko erregimenean egindako inbertsioak aurreko apartatuko kenkarira bildu daitezke, betiere artikulua honetan ezarrita dauden baldintzak betetzen badira.

3. Ondoko hauei ere aplikatuko zaie aurreko 1. apartatuan xedatutakoa:

a) Informatikako aplikazioetan ekitaldiaren barruan egindako inbertsioei.

b) Helburu hauekin inbertitutako kopuruei: eskualdatuak izateko birgaitutako industria pabiloiak erostea, birgaituak izateko industria pabiloiak erostea, edo enpresaren aktiboan dagoeneko sartuta dauden industria pabiloiak birgaitzea.

Ondorio horietarako, industria pabiloitzat joko dira udalek industrial moduan kalifikatutako zonetan kokatutakoak, pabiloi horietan egiten den jarduera edozein dela ere. Eta birgaitze lantzat joko dira, berriz, egitura, fatxada edo estalkiak sendotuz eta tratatuz pabiloiak berreraikitzeo egiten direnak, betiere birgaitze lanen kostu osoak erosketa prezioaren 100eko 25 gaintitzen badu, birgaituak izateko erosi direnean, edo ondasunari kontabilizatutako balio garbiaren 100eko 25etik gorakoa bada, enpresaren aktiboan sartuta dagoen pabiloi bat denean.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako inbertsioek ondoko ezaugarriak eta beharkizunak bete beharko dituzte:

a) Inbertitutako kopuruak aktibo ez-korrontearen barruan kontabilizatzea.

Letra honetan aurreikusitako ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko, errentamendu operatiboan kasuan, errentariak errentan hartutako elementuan edo erabiltzeko hari lagatakoan egindako inbertsiogatik agerian jartzen diren aktiboak.

b) Inbertsio horien xede diren aktiboek gutxienez bost urteko amortizazio epea izatea, informatikako ekipoez izan ezik.

Gutxieneko amortizazio epea hauxe izango da: 100 zati amortizazio tauletan jasotako gehieneko koefizientea eginez ateratzen den emaitza, goitik biribildua.

c) Inbertsioen xede diren elementuek ez tributatzea zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian, hari lotuta ez daudelako, edo lotuta egon arren, salbuetsita daudelako.

d) Inbertsioaren xede diren aktibo guztien zenbatekoak 60.000 euroko zifra gainditzea ekitaldi bakoitzean, eta bi beharkizun hauetako bat betetzea:

— Ibilgetu materialaren, higiezinetakoa inbertsioen eta aplikazio informatikoei dagokien ibilgetu ukiezinaren parte diren aktibo ez-korronteen lehenagoko kontabilitate balioak batuta ateratzen den zenbatekoaren %10 gainditzea, amortizazioak kenduta, edo

— Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate balioaren zenbateko osoaren %15 gainditzea, amortizazioak kendu gabe.

Kontabilitate balioa zehazteko, inbertsioa egin den ekitaldia hasi aurreko lehen zergaldiko azken egunari dagokion balantzea hartuko da kontuan, egun horretan abian dagoen inbertsioaren xede den aktibo ez-korrontearen kontabilitate balioa konputatu gabe.

Izaera bereko aktibo ez-korrontetzat hartuko da Kontabilitate Plan Orokorrean edo, bestela, ofizialki onartutako sektoreko planetan hiru digituko kontu berean dagoeneko sartu dena eta sartuko dena.

60.000 euroko zifra konputatzeko eta letra honetan ezarritako baldintzak betetzeari begira, bakarrik hartuko dira kontuan artikuluen 1., 2. eta 3. apartatuetan eta apartatu honen aurreko letretan aipatutako ezaugarriak eta baldintzak betetzen dituzten aktiboetan egindako inbertsioak. Artikulu honen 6. apartatuko 1., 2. eta 3. erregeletan xedatutakoaren arabera baztertutako kopuruak ez dira konputatuko.

e) Aurreko d) letran xedatutakoa hala xedatuta ere, letra horretan jasotako baldintzetako edozein bete bai baina aktiboaren multzoan 60.000 euroko inbertsiorik gainditzen ez duten enpresek eskubidea izango dute aurreko 1. apartatuko kenkaria aplikatzeko, baldin eta ekitaldian gutxienez lan kontratu mugagabe bat egiten badute, batez besteko plantilla gehituta, eta kontratu hori hurrengo bi urteetan mantentzen badute.

5. Izaera orokorrez, aktibo ez-korrontearen elementuetan egiten diren inbertsioak, dela artikuluen honetan jasotakoak dela foru arau honen gainerako artikuluetan ezarritakoak, funtzionamenduan jartzen diren unean egindakotzat hartuko dira.

Dena den, iraupen luzeko inbertsio proiektuak egiten direnean, hau da, ondasunak enkargatzen direnetik eskura jartzen diren egunera arte hamabi hilabetetik gorako denbora igarotzen denean, subjektu pasiboak ordainketak egin ahala jo ahal izan du egindakotzat inbertsioa, horien zenbateko berean. Horrelakoetan, inbertsio ondasunen hornitzailearekin kontratua formalizatzean indarrean zegoen kenkari erregimena aplikatuko da.

Aukera horretaz baliatuz gero, inbertsio guztiari aplikatuko zaio irizpide hori.

Aukera horretaz baliatu nahi den subjektu pasiboak idatziz jakinarazi beharko dio Foru Aldundiari erabaki hori, eta hilabeteko epea izango du horretarako, kontratua izenpetzen den egunetik aurrera. Bertan, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa eta ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia adierazi beharko ditu. Era berean, jakinarazpen horri kontratuaren kopia erantsi beharko zaio.

6. Artikulu honetan arautzen den kenkariaz gozatzeko, erregela hauek bete beharko dira:

1.a Aktiboak erostean, hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkariaren oinarrian, salbu eta interesak, zeharkako zergak eta errekariguak, eta aktiboak eraistearen edo erretiratzearen ondorioz hartutako obligazioei dagozkien kostuak, ez baitira oinarrian konputatuko, aktiboak baloratzeko kontuan hartu badaitezke ere.

Ondasun higiezinetan inbertituz gero, lurzoruaren balioa kenkariaren oinarritik kanpo utziko da beti.

Inbertsioak industria pabiloiak birgaitzeko egiten direnean, berriz, birgaitzeko erabili diren diru kopuruek eta, birgaituak izateko erosiz gero, pabilioien erosketa prezioak osatuko dute kenkariaren oinarria, aurreko paragrafoetan adierazitako kontzeptuak kanpoan utzita.

2.a Kenkariaren oinarriak ezingo du gaintitu subjektu independenteek merkatuko ohiko baldintzetan hitzartuko zuten prezioa.

3.a Kenkariaren aplikazioa bateraezina izango da inbertsio horiek direla-eta izan litekeen beste edozein zerga onurarekin, amortizazio askatasunari eta amortizazio azkartuari dago kienez izan ezik.

4.a Inbertsioaren xede diren ondasunak eskualdatu, errentan eman edo hirugarren batzuek erabiltzeko lagatzen badira foru arau honen 46. artikuluko 4. apartatuan aipatutako epean, derrigorrezkoa izango da aplikatutako kenkariengatik bere garaian ordaindu ez ziren kuotak eta dagozkien berandutza interesak ordaintzea, eta zenbateko hori desafektazioa gertatzen den ekitaldiko zergaren aitorpenetik ateratzen den kuotari gehitu beharko zaio.

Desafektazio hori dela-eta inbertsioak kenkariak gozatzeko jarritako mugatik beherakoak badira, kenkari horiek galdu egingo dira oso-osorik eta lehen aipatutakoaren arabera ordaintzeko obligazioa sortuko da. Berdin jokatu da sortutako enplegua aurreko 4. apartatuko e) letran finkatutako epean mantentzen ez bada.

Ondasuna behin bakarrik eta gehienez hilabeteko epean berriro afektatzea edo zenbateko eta ezaugarri beretsuko beste batekin ordeztzea aurreko paragrafoetan aurreikusitakotik kanpo geratzen dira.

7. Aktiboak eskuratzen badira legezko lagapen obligazio bat betetzeagatik, entitate lagapendunak ezingo du aplikatu artikuluko honen 1. apartatuan aipatzen den kenkaria. Gainera, artikuluko honen 4. apartatuko d) letran jasotakoaren ondorioetarako, lagapendunak aktibatutako zenbatekoak ezingo dira konputatu ez ekitaldiko inbertsio gisa ez lehenagotik dauden aktibo gisa.

Lau. 45. artikuluko 2. apartatuko lehen paragrafoa honela berridatzi da:

«Aurreko apartatuan ezarritako kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da lan kontratu mugagabea duen batez besteko plantilla aurreko lehen zergaldikoaren aldean gehitzea, eta gehikuntza hori kenkarirako eskubidea sortu den zergaldia amaitu ondorengo bi zergaldietan mantentzea, hori guztia arauz ezarriko den eran.»

Bost. 49. artikulua honela geratu da idatzita:

«49. artikulua. Enpresa txikiaren eta ertainaren kontzeptua.

1. Honako beharkizunak betetzen dituen enpresa txikitzat hartuko da:

a) Ustiapen ekonomiko bat egitea.

b) Bere eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitzen den eran, edo bere aktiboa, 10 milioi eurokoa baino handiagoa ez izatea.

c) Batez besteko plantilla 50 langiletik beherakoa izatea.

d) Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez edukitzea entitate horien kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, %25etik gorako partaidetzarik, non eta entitate horiek ez diren foru arau honen 59. eta 60. artikuluetan aipatutakoak, eta euren partaidetza ez den sozietate horien xede soziala betetzearen ondorio bat.

2. Honako beharkizunak betetzen dituen enpresa ertaintzat hartuko da:

a) Ustiapen ekonomiko bat egitea.

b) Bere eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitutako eran, 50 milioi eurokoa baino handiagoa ez izatea, edo bere aktiboak 43 milioi euro ez gainditzea.

c) Batez besteko plantilla 250 langiletik beherakoa izatea.

d) Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez edukitzea entitate horien kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, %25etik gorako partaidetzarik, non eta entitate horiek ez diren foru arau honen 59. eta 60. artikuluetan aipatutakoak, eta euren partaidetza ez den sozietate horien xede soziala betetzearen ondorio bat.

3. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan ezarritako beharkizunak zergaren sortzapena gertatzen den ekitaldia hasi aurreko zergaldian bete beharko dira.

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketa bolumenari dagokion magnitudea urtebetera eramango da. Berdin jokatu da entitatea sortu berria denean.

4. Aurreko 1. eta 2. apartatuetako c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, batez besteko plantilla kalkulatzeko, urtean lanaldi osoko langileak zenbat diren begiratu da. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako ordu kopuruaren proportzioan egingo da konputua.

5. Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, adierazitako magnitudeak talde horretako entitate multzoari buruzkoak izango dira.

Aktiboa eta eragiketa bolumena konputatzeko, kontuan hartuko dira Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hura garatzen duten arauetan jasotakoagatik bidezko diren ezabaketak.»

Sei. 88. artikulua 1. apartatuko a) letra honela geratu da idatzita:

«a) Txertatu gabeko ezabaketak baterakuntza fiskaleko araubidea aplikagarri izan den azken zergaldian talde fiskalari dagokion oinarri ezargarrion sartuko dira.

Aurrekoa ez da aplikatuko entitate nagusia baterakuntza fiskaleko araubidean tributatzen duen beste talde fiskal bateko menpeko bihurtzen denean, edo talde horretako beste sozietate batek, bategite prozesu baten bitartez, bera xurgatzen duenean foru arau honetako VIII. tituluaren X. kapituluaren jasota dagoen araubidera bilduta. Bi kasuetan, entitate nagusi horren menpeko ziren sozietate guztiak beste talde fiskal horretan integratzen dira. Ezabatutako emaitzak beste talde fiskal horren oinarri ezargarrion sartu behar dira, foru arau honek 80. artikuluan ezarritako eran.»

Zazpi. 115. artikulua 1. apartatuko c) letraren edukia ezabatu da.

Zortzi. 15. apartatua gehitu zaio 115. artikuluari. Hona testua:

«15. Artikulu honetan jasotakoa ez da aplikatuko lurralde espainiarrean egoiliar ez den entitateak Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duenean, betiere subjektu pasiboak frogatzen badu bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresariak egiten dituela.»

Bigarrena. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, edukirik gabe utzi da Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 FORU ARAUAREN 29. artikulua 5. apartatuko a) letra.

Hirugarrena. 2009ko uztailaren 4tik aurrerako ondorioekin, 102. artikulua 1. apartatuko lehen paragrafoa aldatu da Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan, eta honela geratu da idatzita:

«1. Kapitulu honetan jasotako araubidea aplikaziozkoa izango da, subjektu pasiboak hala aukeratu badu, merkataritza sozietateen aldaketa estrukturalak onartzen dituen apirilaren 3ko 3/2009 Legeak 81. artikulutik 84. artikulura bitartean aipatzen dituen aktibo eta pasiboaren erabateko lagapenetan, beharkizun hauek betetzen badira:»

Artículo 4. Maiatzaren 22ko 2/1997 FORU ARAUA, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa, aldatzea.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatzeko, honako xedapenak aldatu dira Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauan:

Bat. 12. artikuluan aipatzen diren 1. eta 3. egoerak honela berridatzi dira:

«1. Diru zuzkidurarik ez egitea Derrigorrezko Erreserba Fondoari eta heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioari kooperatiben legeria aplikagarriak ezartzen dituen kasu, baldintza eta zenbatekoetan.»

«3. Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezartzen duen kontribuzioaren diru kopuruak artikulu honetan aurreikusi ez diren helburuetarako erabiltzea.»

Bi. 16. artikulua 3. eta 4. apartatuak honela geratu dira idatzita:

«3. Kooperatibek heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako erabiltzen dituzten nahitaezko kopuruak, hurrengo artikuluan zehazten diren baldintzekin.

4. Bazkideek kapital sozialari beren borondatez nahiz derrigorrez egindako ekarpenek sortzen dituzten interesak (Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 57.5 artikuluan araututako ekarpenenak barne), eta aipatutako legearen 67.2.b) eta 68 bis artikuluetan aurreikusten den kontribuziora zuzendutako zuzkiduretatik datozenak, betiere haien interes tasak, bazkideentzat bi puntutan gehituta eta bazkide laguntzaile eta jardun gabekoentzat lau puntutan gehituta, diruaren legezko interesa gainditzen ez badu. Ekitaldi ekonomiko bakoitza ixtean indarrean dagoen legezko interes tasa izango da erreferentzia.

Kooperatibako partaidetza bereziak ordaintzeko erabiltzen diren diru kopuruak ez dira kengarriak izango, haien titularrak kooperatibako bazkide edo asoziatu ez direnean eta partaidetza horiek kapital sozialaren izaera dutenean.»

Hiru. 17. artikulua honela geratu da idatzita:

«17. artikulua. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioa gastu kengarritzat hartzeko baldintzak.

1. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioaren zuzkiduragatik kengarria den zenbatekoak ezingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzean gainditu ekitaldi horretako soberakin garbien 100eko 30.

Kooperatibaren Batzar Orokorrek onartzen duen planaren arabera aplikatuko da kontribuzioa.

2. Kontribuzioaren zuzkidurak eta planak exijitu ditzakeen aplikazioak, gastu arruntenak izan nahiz ibilgeturako inbertsioenak izan, bereizita jasoko dira sozietatearen kontabilitatean, kontribuzio horri atxikita daudela argi adierazten duten kontuetan.

3. Kontribuzio horretatik interes publikoko helburuetarako –kooperaribak berak aukeratuetaerako– erabili ez den zenbatekoa irabazi asmorik gabeko entitateei eman beharko zaie soberakina banatzea erabaki ondorengo ekitaldi ekonomikoaren barruan, eta entitate horiek kontribuzio honetarako ezarrita dauden interes publiko xedeetarako erabili beharko dute.

4. Kontribuzioa onartu ez diren helburuetarako erabiltzeak berarekin ekarriko du behar ez bezala aplikatutako zenbatekoa ekitaldi horretan izandako sarreratzat hartzea, 12. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren kaltetan gabe.

Era berean jokatuko da Derrigorrezko Erreserba Fondoaren zatia bazkideen artean banatzen denean, 12. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren kaltetan gabe.

5. Ekitaldia ixtean, gastu eta errenta negatiboen kontuen saldoak kontribuzioaren emaitzak bilduko dituen kontu berezi batean zordunduko dira, eta bereziki honako hauek:

a) Prestakuntza, heziketa eta kultur sustapenerako gastu arruntak.

b) Kontribuzioaren helburuei atxikitako ibilgetuaren ondasunak artatu, konpondu eta amortizatzeko gastuak.

c) Ondasun horiek besterentzean izandako galerak.

6. Sarrera eta beste errenta positiboen kontuen saldoak ere modu berean zordunduko dira kontu horretan, eta bereziki honako hauek:

a) Kontribuzioaren helburuak betetzeko jasotako subentzioak, dohaintzak eta laguntzak.

b) Kooperatibak bazkideei ezarritako diziplinazko zigorrak.

c) Aurreko 3. apartatua aipatu diren materializazioen etekin finantzarioak.

d) Kontribuzioaren helburu zehatzei atxikitako ibilgetuaren ondasunak besterentzean lortutako mozkinak.

7. Horrela zehaztutako emaitzen kontuaren saldoa kontribuzioaren kontura eramango da.

Kontribuzioaren emaitzen kontura eramaten diren gastu, galera, sarrera eta mozkinak ez dira kontuan hartuko kooperatibaren Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarria kalkulatzeko.

8. Artikulu honetan xedatutakoa beste edozein kontribuzio edo fondori ere aplikatuko zaio xedapen honetan araututako izaera eta helburu berdinak baditu, baita dagokion legeria aplikagarriaren indarrez beste izenen bat hartzen badu ere.»

Lau. 26. artikulua 1. apartatuko c) letra honela berridatzi da:

«c) Ondasunak eta eskubideak eskuratzea Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioaz baliatuta, artikulua horretan jasotako helburuak betetzeko.»

Bost. 43. artikulua 1. apartatuko c) letra honela berridatzi da:

«c) Ondasunak eta eskubideak eskuratzea Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioaz baliatuta, artikulua horretan jasotako helburuak betetzeko.»

II. kapitulua. Aldaketak zeharkako zergetan.

5. artikulua. Abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.

Ondoko xedapenak aldatu dira Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren abenduaren 30eko 18/1987 FORU ARAUAN:

Bat. 7. artikulua 3. apartatua honela geratu da idatzita:

«3. Hipoteka Legearen 11. artikuluan aipatzen diren baldintza suntsiarazle espresuak prezio geroratuaren ordainketa saldatuko ondasun higiezinarekin bermatzen duten hipotekekin parekatuko dira.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezin eskualdaketan prezio geroratu ordaintzea bermatzen duten hipotekek eta baldintza suntsiarazle espresuek ez dute zergarik ordainduko “kostu bidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuagatik.»

Bi. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 7. artikulua 5. apartatuko b) letra aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«b) Subjektu pasiboaren ondare enpresarial edo profesionalaren parte diren eta, bere bitartekoak erabilia, jarduera enpresarial edo profesional bat garatu dezakeen unitate ekonomiko autonomo bat osatzen duten elementu gorpuzdunak eta, hala badagokio, gorpuzgabeak eskualdatzean ondasun higiezin entregak egitea, baldin eta kasuan kasuko zirkunstantziengatik ondare horren eskualdaketa ez badago Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta.

Letra honetan aipatu diren kasuetan, eskualdaketa horretan sartzen diren higiezinak ez diren gainerako ondasun eta eskubideen salmentak ez dira lotuta egongo titulu honetan araututa dagoen “kostu bidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuari.»

Hiru. 11. artikulua 1. apartatuko e) letra aldatu da, eta f) letra gehitu zaio apartatu horri. Hona hemen testuak

«e) Aurreko a) letran xedatutakoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren eskualdaketa orokorrak, ondorengo letran aipatutakoak izan ezik, %4 tasaren arabera zergapetuko dira, bi unitate bitarteko garaje plazak, eta haiekin batera eskualdatzen diren eranskinak barne hartuta. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

Etxebizitza izateko egokitzen diren lokalen kasuan zergapekoa pertsona fisikoa denean eta lokala jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoenean, benetan ordaindutako zergaren eta

eskualdatutako higiezinari %4ko tasa aplikatzearen arteko diferentzia itzuliko du Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da letra honek zerga tasa hori aplikatzeko exijitzen dituen baldintzak betetzea eta, gainera, zergapekoak eskualdaketa egin eta 18 hilabeteko epean frogatzea etxebizitza gisa erabiliko duen lokalerako lehen erabilera edo okupaziorako lizentzia eskuratu duela. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.

f) 1.a Ondoko eskualdaketak %2,5 aplikatuta zergapetuko dira:

- 120 metro karratutik gorako azalera eraikia ez duten etxebizitzak, eta orobat, haien garajeak, bi unitate gehienez, eta aurreko e) letran aipatu diren eranskinak.

- Familia bakarreko etxebizitzak, haien azalera eraikia 120 metro karratutik gorakoa ez denean, eta lursailaren azalera, eraikinak hartzen duena barne, 300 metro karratukoa baino handiagoa ez denean.

2.a Ondokoak ere %2,5eko tasa aplikatuta zergapetuko dira, eskuratzailerak familia ugariaren titularra izanez gero:

- Etxebizitzak eta haien garajeak (bi gehienez), eta aurreko e) letran aipatutako eranskinak.

- Familia bakarreko etxebizitzak.

f) letra honetan aipatzen den %2,5eko tasa aplikatzeko ondoko beharkizunak bete beharko dira:

1. Eskuratzailerak ez izatea udalerrin berean beste etxebizitza baten jabea %25etik gorako portzentajearekin.

2. Eskuratzaileraren ohiko bizilekua izateko erabiltzea etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 90.8 artikuluan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. zenbakian jasotako beharkizuna betetzen dela justifikatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da gehienez, etxebizitza eskuratu denetik zenbatzen hasita. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.

3. Eskuraketaren agirian adieraztea letra honetan ezarritako baldintzak betetzen direla edo beteko direla.

f) letra honetan xedatutakoa aplikatzeko, azalera eraikitzat hartuko da fatxadetako lerro perimetralen barruan (kanpoko zein barrukoetan) eta mehelinetako ardatzen artean dagoena.

Estalita dauden hegalkinak, balkoiak edo terrazak azalera eraikiaren parte izango dira alboetatik hormek mugatuta daudenean; bestela, haien azaleraren %50 baino ez da konputatuko, modu berean neurtuta.

f) letra honetan aipatzen den azalera eraikiaren barruan inolaz ere ez da konputatu behar elementu komunek okupatzen duten azaleraren zati proportzionalari dagokiona.

Aurreko e) letraren azken paragrafoan jasotakoaren salbuespen gisa, etxebizitza izateko egokitzen diren lokalen kasuan zergapekoak pertsona fisikoak denean, benetan ordaindutako zergaren eta eskualdatutako higiezinari %2,5eko tasa aplikatzearen arteko diferentzia itzuliko du Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik. Horretarako, dena den, beharrezkoa izango da letra honetako 1. eta 2. zenbakietan eta bere xedapen orokorretan zerga tasa hori

aplikatzeko exijitzen diren baldintzak betetzea, eta zergapekoak eskualdaketa egin eta 18 hilabeteko epean frogatzea etxebizitza gisa erabiliko duen lokalerako lehen erabilera edo okupaziorako lizentzia eskuratu duela. Itzulketa horrek ez du berandutza interesik sortuko.»

Lau. 14. artikulua 3. apartatua honela geratu da idatzita:

«3. Arau orokor bezala, oinarri ezargarria zehazteko, emakidadunari ezarritako obligazioen izaeragatik ondoren adierazten direnetatik aplikagarri gertatzen den/diren erregela edo erregelak aplikatuz finkatuko da emakidarako sortarazitako eskubidearen balio erreala:

a) Administrazioak emakidadunak ordaindu beharreko prezio edo kanon kontzeptuagatik zenbateko bat ezartzen badu, zenbateko hori izango da balio erreala.

b) Administrazioak emakidadunak aldian-aldiri ordaindu beharreko kanon, prezio, partaidetza edo gutxieneko mozkin bat ezartzen badu, eta emakidaren iraupena urtebetetik gorakoa ez bada, balio erreala aldizkako prestazioen batura osoa izango da. Emakidaren iraupena urtebetekoa baino handiagoa denean, emakidadunak urtean ordaintzen duen zenbatekoa %10ean kapitalizatuz aterako da, emakidaren epea aintzat hartuta.

Erregela hau aplikatzeko urteko zenbateko aldakor bat kapitalizatu behar denean, eta aldakortasun horren arrazoi bakarra prezioak berrikusteko klausulen aplikazioa denean – bilakaeraren indize objektiboak erreferentziatzen harturik–, lehen urteari dagokiona kapitalizatuko da. Aldakortasun hori beste zirkunstantzia batzuegatik gertatzen bada, eta haien arrazoi matematikoa emakida gauzatzen den unean ezagutzen bada, kapitalizatuko den zenbatekoa emakidadunak emakidak dirauen bitartean ordaindu behar dituen urteko batez bestekoa izango da.

c) Emakidadunak Administrazioari ondasun jakin batzuk itzuli behar badizkio, ondasun horiek itzulketa egunean duten kontabilitate balio garbia eta itzulketarako aurreikusita dauden gastuak konputatuko dira. Ondasunen kontabilitate balio garbia kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako onartutako amortizazio taulak aplikatuko dira. Hain zuzen ere, horietatik ateratzen den batez besteko portzentajea aplikatuko da.»

Bost. 17. artikulua 1. apartatua honela geratu da idatzita:

«1. Kreditu edo eskubideak eskualdatzen badira horien erabilerarekin dirutan baloratu daitezkeen ondasun jakin batzuk eskuratzeko, ondasun eta eskubide horien eskualdaketei dagozkien kontzeptu eta tasa berdinen arabera exijituko da zerga. Aldiz, eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren kasuan, oinarri ezargarria kreditua edo eskubidea eskualdatzen den unean ondasunak duen balio erreala izango da. Gainera, ezingo da izan lagapenagatik ordaindutako kontraprestazioaren zenbatekoa baino txikiagoa.»

Sei. 29. artikulua 2. apartatua honela geratu da idatzita:

«2. Eskrituren eta akta notarialen lehen kopiak, gainera, 100eko 0,5eko tasaren arabera zergapetuko dira, baldin eta kopuru edo gauza baloragarri bat baldin badute xedea, Jabetzaren, Merkataritzaren edo Ondasun Higigarrien Erregistroetan inskribatu daitezkeen egintza edo kontratuak jasotzen badituzte, eta egintza edo kontratu horiek ez badaude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari edo foru arau honen 1.1. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan sartutako kontzeptuei, egintza edo kontratu horiei dagokienez. Protesto akten kopiei tasa hori bera aplikatuko zaie.»

Zazpi. 2010eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, edukia eman zaio 41. artikulua 1. apartatuko B) letraren 11. zenbakiari. Hona zer dioen:

«11. Etxebizitzen lehen eskualdaketa dokumentatzen duten eskritura notarialen lehen kopiak, notaritzako agiriei egintza juridiko dokumentatuen modalitatean aplikagarri zaien eta foru arau honen 29.2 artikuluan aipatzen den karga tasari dagokionez.»

Zortzi. 52. artikulua honela geratu da idatzita:

«52. artikulua.

1. Bulego edo erregistro publikoetan ez da onartuko, eta ez du eraginik sortuko, zerga honi lotutako egintza edo kontratuei buruzko inolako agiririk, aurretik ez bada justifikatzen Zerga Administrazio eskudunari zerga zorra ordaindu zaiola, administrazio horrek salbuespena deklaratu duela, edo, gutxien jota, agiri hori administrazioari aurkeztu zaiola. Administrazio interesatuari berehala eman beharko zaio gertatzen diren gorabeheren berri. Epaitegi eta auzitegiek onartzen dituzten agirietan ez bada inolako oharrik ageri zerga Administrazioak likidatzeko aurkezpenaren inguruan, agiri horien kopia baimendua bidali beharko diote zerga likidatzeko eskumena duen administrazioari.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, zerga ordaindutzat joko da baldin eta delako agiriarekin batera tributua ordaindu izana adierazten duen autolikidazioa aurkezten bada.

3. Inskripzioaren albo-ohar baten bitartez, erregistratzaileak agerrarazi behar du eskualdatutako ondasun edo eskubideagatik bidezko den likidazioa edo likidazio osagarria ordaindu beharko dela.

Albo-oharra ofizioz egingo da, eta indarrrik gabe eta deuseztatuta geratuko da egindako likidazioaren ordainketa agiria aurkezten denean eta, nolana ere, albo-oharra egin zenetik bi urte igaro eta gero.»

Bederatzi. 55. artikulua 1. apartatua honela geratu da idatzita:

«1. Honako hauek ez dira zertan aurkeztu bulego likidatzaileetan:

a) Efektu publiko, akzio, obligazio eta era guztietako balore negoziagarriak eskualdatzeko formalizatzen diren agiriak, horietan notarioak eta balore sozietate eta agentziak esku hartzaile direnean.

b) Kopuru edo gauza baloragarri bat xede ez duten eskrituren eta notaritzako akten kopiak, eta mota guztietako notaritza lekukotasunak. Kanpoan geratzen dira zergari lotutako egintzak dokumentatzen dituzten agirienak, baldin eta dokumentu horietan ordainketaren oharra, salbuespenarena edo ez zergapetzearena ageri ez bada.

c) Kanbio letrak eta protesto aktak.

d) Egintzen eta kontratuen inguruko beste edozein agiri, baldin eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen badu horietan zerga ordainarazteko efektu tinbredunak erabili behar direla.»

III. kapitulua. Aldaketak udal zergetan.

6. artikulua. Uztailaren 5eko 12/1989 FORU ARAUA, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena, aldatzea.

Ondoko xedapenak aldatu dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 FORU ARAUAN:

Bat. 11. artikulua 5. apartatua honela geratu da idatzita:

«5. Ponentziak jendaurrean jartzen direnetik aurrera, horietatik ateratzen diren katastro balioak indibidualki jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, subjektu pasiboa bera edo propio baimendutako pertsona erabakitzen diren bulego publikoetara bertaratuta. Balio horiek indarrean sartu aurreko lehen urtea amaitu baino lehen jakinaraziko dira.

Erregelamenduz arautuko da nola egingo den jakinarazpena interesatua bertaratuta. Nolanahi ere, epe bat ezarriko da jakinarazpenak jasotzeko, eta epe hori ezingo da izan hogeitun egun naturalekoa baino txikiagoa, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta. Orobat, interesatuak bertaratzeko epe hori Gipuzkoan zabalkunde gehien duten egunkarietan argitaratuko da jakinarazpenak jasotzeko epearen lehen egunetan.

Jakinarazpena eramateko epea amaitzen bada eta hura jaso gabe badago, balio katastral berriak jakinarazitzat joko dira ondorio guztietarako.

Artikulu honetan aipatzen diren balio katastralak finkatzeko egintzak arrazoituak izango dira beti, eta balio horien jakinarazpen bakoitzean honako datuak adieraziko dira: balio horiek finkatzeko erabilitako ponentzia, zona edo azpizona katastrala, lurzuaren balio eragingarria, eraikuntza kostua, aplikatutako koefiziente zuzentzaileen identifikazioa, ondasun higiezinak katastroaren ondorioetarako duten azalera eta, azkenik, lokalaren antzintasuna eta helburua. ME ponderazio koefizientea ere aipatu beharko da, hau da, balio katastrala zehazteko prozedurak aurreikusten duena eta kasu bakoitzean aplikagarri dena.»

Bi. 15. artikulua 1. apartatuko a) letra honela geratu da idatzita:

«a) Kuota osoaren %50etik %90era bitarteko hobaria, betiere interesatuek obrak hasten diren zergaldiaren barruan hala eskatzen badute, honako ondasun higiezinen kasuan: obra berrikoak nahiz haiekin parekarri diren eraberrikuntzakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresek egiten duten jardueraren xede direnean eta haien ibilgetuaren artean ageri ez direnean.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, eta betiere denbora horretan urbanizazio edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epe horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gainditu.»

Hiru. 19. artikulua 2. apartatua honela geratu da idatzita:

«2. Zehazki esanda, udalei dagokie altak eta bajak tramitatu eta likidatzea, errekurso eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta Erroldari buruz nahiz zergarekin lotutako gaietarako buruz zergadunak eska dezakeen laguntza eta informazioa ematea.»

7. artikulua. Apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duena, aldatzea.

Honako aldaketak sartu dira apirilaren 20ko 1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEAN, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzekoan:

Bat. 5. artikulua 1. apartatuko c) letra honela berridatzi da 3. erregela:

«3. Eragiketa bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, adierazitako magnitudeak talde horretako entitate multzoari buruzkoak izango dira.»

Bi. Azken paragrafo bat gehitu zaio 14. artikulua 2. apartatuari. Hona bere edukia:

«Subjektu pasibo guztiek informazioa eskuratu dezakete jarduera ekonomikoen gaineko zergarekin lotutako gaien inguruan (zerga tasak, hobariak, elementu tributarioak eta kuotak), betiere beraiek egiten dituzten jarduerengatik bada eta jarduera horiek zergaren erroldetan eta matrikulan ageri badira.»

8. artikulua. Uztailaren 5eko 14/1989 FORU ARAUA, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarena, aldatzea.

Xedapen hauek aldatu dira uztailaren 5eko 14/1989 FORU ARAUAN, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoan:

Bat. 2. artikulua honela geratu da idatzita:

«2. artikulua.

1. Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkeri diplomatikoen, kontsulatuko bulegoen, eta atzerriko agente diplomatikoen eta karrerako funtzionario kontsular kreditatuen ibilgailuak, kanpotik identifikatuta badaude eta mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta estatutu diplomatikoa duten funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzarako nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65koa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C

letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

b´) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiri garraio publikoari atxikita dauden gainerako ibilgailuak, plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Kartilaz hornitutako traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak behin salbuespena onartuta, agiria luzatuko du hura eman dela egiaztatzeko.

Aurreko 1. apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesatuak desgaitasunaren frogagiria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena, aurkeztu beharko dizkio zerga ezartzen duen udalari, eta ibilgailua zertarako erabiltzen duen ere justifikatu beharko dio udalak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko duen eran. Aipatutako frogagiriak organo eskudunak emanak izango dira beti.»

Bi. 4. artikulua 1. eta 3. apartatuak aldatu dira, eta honela geratu dira idatzita:

«1. Ondorengo tarifen arabera eskatuko da zerga:

<i>Ibilgailuaren potentzia eta mota</i>	<i>Kuota</i>
	<i>Euroak</i>
a) Turismoak.	
9 zaldi fiskal baino gutxiago	18,39
9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	36,78
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartean	61,30
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	85,82
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	110,34
20 zaldi fiskaletik aurrera	134,86
b) Autobusak.	
21 plaza baino gutxiago	83,30
21 eta 50 plaza bitartean	118,64
50 plaza baino gehiago	148,30
c) Kamioiak.	

1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30
2.999 kg-tik gorako eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30
d) Traktoreak.	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	17,67
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	27,77
25 zaldi fiskal baino gehiago	83,30
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak.	
750 kg-tik gorako eta 1000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	17,67
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30
f) Bestelako ibilgailuak.	
Ziklomotoreak	4,51
125 cm ³ bitarteko motozikletak	4,51
125 cm ³ baino gehiagoko eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	7,72
250 cm ³ baino gehiagoko eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	15,45
500 cm ³ baino gehiagoko eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	30,90
1.000 cm ³ -tik gorako motozikletak	61,79

«3. Udalek nahi badute, gehitu egin ditzakete artikuluko honen 1. apartatuan finkatutako kuotak, haien gainean koefiziente bat aplikatuz, eta koefiziente hori 3 izango da gehienez.

Udalek koefiziente bat finkatu ahal izango dute artikuluko honen 1. apartatuan jasotako tarifen taulan ageri den ibilgailu mota bakoitzerako. Koefiziente hori desberdina izan daiteke ibilgailu mota bakoitzean finkatutako tarte bakoitzerako, baina betiere aurreko paragrafoan zehaztutako gehieneko muga inoiz ere gainditu gabe.»

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehena. Ondarearen gaineko zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauari egindako aipamenak.

Foru arau honen lehen xedapen indargabetzailean xedatutakoa xedatuta ere, Ondarearen gaineko Zergaren arauak indarrean izango dira 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zerga aipagai hartzen duten edo hartara igortzen duten xedapenen edukia osatzeko balio dutenean.

Bigarrena. Ohiko etxebizitza erosteko irekitako kontuetan gordailatu diren kopuruak erabiltzeko epea luzatzea.

Irekitako kontuei jarraian aipatzen diren daten artean amaitzen bazaie abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.5 artikularen b) letran eta abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 71.1 artikuluan aipatzen duten epea:

- 2011ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean, 8 urtekoa izango da ohiko etxebizitza erosteko gordailaturiko kopuruak erabiltzeko epea, aipatutako kontua ireki zen egunetik aurrera.

- 2012ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean, 7 urtekoa izango da ohiko etxebizitza erosteko gordailaturiko kopuruak erabiltzeko epea, aipatutako kontua ireki zen egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera etxebizitza kontuan gordailatzen diren kopuruek eskubidea emango dute abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90. artikuluan aipatzen duen kenkaria egiteko.

XEDAPEN IRAGANKORRA.

Bakarra. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan desgaitasunagatik aplikatzen diren salbuespenak.

Foru arau hau indarrean sartu baino lehen trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan salbuesitako ibilgailuek uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2.1.e) artikularen idazkera zaharra aplikatuta jaso bazuten salbuespena, berriro eskatu beharko dute salbuespen hori, baldin eta udalari lehendik frogatu ez badiote aipatutako artikularen idazkera berrian ezarritako baldintzak betetzen dituztenik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK.

Lehena.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabeturik geratu da Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua, nahiz eta horrek ez duen eragotziko foru arau honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzea.

Bigarrena.

Indargabeturik geratu da zerga alorreko zenbait neurri onartu zituen urriaren 28ko 10/2005 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarria.

Hirugarrena.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabeturik geratu da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 80 bis artikulua.

Laugarrena.

Indarrik gabe geratu dira foru arau honetan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean foru arau hau, bere xedapenetan espresuki jasotako ondorioak eragotzi gabe.